"Berbeteari gatza eta piperra"



BUSTURIALDEKO HIZKUNTZ NORMALKUNTZA

“Berbeteari gatza eta piperra”

BUSTURIALDEKO HIZKUNTZ NORMALKUNTZA

EGILEAK:

Eukene Arrien (San Fidel Ikastola)
Yolanda Elorriaga (Gernika BHI)
Maribi Galarza (Arozena-Barrueta BHI)
Pedro Mari Gezuraga (Barrutialde BHI)
Nerea Jaio (B10 Berritzegunea)
Jon Andoni Uriarte (Seber Altube Ikastola)
Edurne Zabala (Gernika BHI)

IRUDIAK: ***Mikel Egia***
DISEINUA: ***Pedro Mari Gezuraga***

1. edizioa: 2002
Lege gordailua: BI-1580-02

GERNIKA-LUMOKO UDALA

BERMEOKO UDALA

Bada mende bete Mariano Mendigatxak zera idatzi ziola Azkue handiari: "En la riña de nuestro bascuence no hay mecagos, solo ojalas; no se toca a los santos ni a la Virgen, solo hay maldiciones de muerte y otros males, que por ser tan horrorosos no me atrevo a ponerle". Erronkariko Uskara mapa munditik desagertu egin da; hala ere oso dialekto ikertua dugu: gramatikak eta hiztegiak badauzkagu, garai hobeagotan berpiztu nahi baldin bagenu.Aise gutiago zeukaten Israelen, juduera berreskuratzen hasi zireneko, adibidez. Baina hutsune nabaria utzi digute Mendigatxak eta beste guztiek, inork ez baitizkigu irain eta madarikazio haiek bildu. Eta non dira Hizkuntzaren gatza eta piperra? Betirako galduak ote?

Busturialdeko jendeek ez diote Iraganari begiratu behar izan irain bilketa eder hau gauzatzeko; Orainari diote behatzen, eta hala eginez, Geroa bermatzen diote Hizkuntzari. Erakargarria, sortzailea, indartsua agertu baitzaigu Euskara orri hauetan.

Adibidea eredugarri izango ahal da beste eskualdetarako... bai eta denon arteko Batuaren aberasgarri ere!

Euskara ez zela iraintzeko gauza zioen Nobel saridun hura hilik dago, eta sortu berri den honako lan honek zera egiaztatzen digu: Egundaino argitaratuak ez izanagatik, euki, badauzkagu. Balia ditzagun!

ASISKO URMENETA

SARRERA

Eskuetan daukazun lantxu honen helburua ez da inor iraintzea, ez horixe. Osterantzeko asmo jatorragoa gogoan izanda egin dogu gure eskualdeko irainen batze-behar hau.Gure gaur egungo gazteen berbetea ez da helduok darabilgun ereduaren bardina, antzekoa bez askotan. Egia da gazteak euskera gehiago egiten dabela orain urte batzuk baino eta horrexegaitik, hain zuzen be, gertatzen da aldaketa. Erabiltzen ez dana, dan moduan gorde lei baina erabiltzen dan edozer moldatu egiten da, itxuraldatu. Eta horixe bera jazo jako gazteen berbeteari: aldatu egin da. Eguneroko beharrizanei erantzun beharrak eragiten dau hau guztiau. Maitasuna, gorrotoa, haserrea, poza, lotsa..., zer ez ete dogu adiazoten hizkuntzaren bidez? Eta holako zeozer geurea dan hizkuntzan azaldu ezin izango bagendu, agur.

Edozein berbeta-klasek bizitasuna behar dau eta gazteenak oraindik gehiago. Hizkuntzak erabilgarria izan behar dau; edozein sentimentu di-da batean agertzeko dohaina behar dau. Horixe da gazteak eskatzen deutsena: funtzionala izatea.

Baina, askotan, gehiegitan gure eritxiz, funtzionaltasun horren izenean gaztelerara joten dabe gure gazteak. Lagun bat zikina dala adiazoteko "guarro" edo "puerko" esaten dabe euskera jatorra daukien gazteak be. Orain dala urte batzuk "txarritto" esango gendun seguru asko.

Bueltau gaitezen, ba, hasieran esandakora, lan honen helburura hain zuzen. Gure xedea ez da berba motzen hiztegi antzerako bat egitea, gazteak eguneroko hitz-jardunean galtzeko arriskuan dagozan eta behar-beharrezko dabezan berbak batzea eta ezagutu eragitea baino. Ez dogu gura jentea alkar iraintzen ibiltzerik baina hori gerta-

tu egingo da; orain arte gertatu izan da, gertatzen da eta, egon seguru, gertatu egingo da. Horrexegatik egin dogu ahalegin hau: eskualdeko irainak berreskuratzeko eta euren erabilera gazteen artean indartzeko.

Beste edozer baino gehiago didaktikotasuna bilatu dogu eta ikusiko dozunez, erraz ulertzeko moduko sailkapena egin dogu. Askotan, irainak irudiz lagunduta datoz atseginagoa izatetik aparte ulertzeko lagungarri be izan lei-eta.

Irain bakotxaren sartukera egiterakoan hiru atal izango dira: lehenengo, iraina bera agertuko da baina gaur egungo arau ortografikoak gogoan izanda idatzirik; ostean, eskualdeko ahoskera erakusten dauan grafian idatzita, eta azkenik, irainaren ganeko azalpena. Transkripzinoak egiterakoan modu berezia erabili dogu, beti be erraztasuna eta didaktikotasunaren izenean. Mendebalde osoan "z" ahoskatzen ez dogula jakinda be, "z" eta "s" biak idatzi izan doguz, iraina zelan ahoskatzen dan jakiteko arazorik sortzen ez daualako eta ganera jentea holan idatzita ikusten ohituta dagoelako. Bardin-bardin egin dogu "ts" eta "tz" fonemakaz be, jakinda lehenengoa ez dogula hemen ahoskatzen. Fonema sabaikariei jagokienez, "ll", "ñ" eta "tt" erabili dira eta berba amaierako "i+a" fenomenoaren ondorioz sortzen den kontsonante sabai-aurreko berezia "dx" grafiagaz transkribidu dogu, "herridxe", "ogidxe"... berbatan agertzen dana, hain zuzen be.Beste batzutan, gure eskualdean bertan ahoskera diferenteak dagozanean, forma biak emon doguz. Esate baterako "apoa" eta "apue".

Eta beste barik, gozatu eta ikasi.

BUSTURIALDEKO IKASTEETXETAKO
HIZKUNTZ NORMALKUNTZA TEKNIKARIAK

AURKIBIDEA

1. ITXURARAZKO EZAUGARRIAK:

1.1. Pertsona zaharkituaren itxura edota pentsamoldea adierazteko 8
1.2. Pertsona zikina danean 10
1.3. Mugimendu gitxiko jendeari 16
1.4. Elementu fisiko bat nabarmentzen jakonean 20
1.5. Animalien ezaugarriak adierazteko 30

2. IZAERAZKO EZAUGARRIAK:

2.1. Adimen gitxiko pertsonari 34
2.2. Ganorabakoari 40
2.3. Sexuarekikoak 46
2.4. Gaiztokeria desbardinen jabe direnei 50
2.5. Alferra edo ardurarik hartzen ez dauanari 56
2.6. Barritsuari 58
2.7. Pertsona onegia danean 60
2.8. Indarraren ingurukoak. 62
2.9. Bere burua gehiagotzat daukana 64
2.10. Zirikatzaile, pazientzibako edo ezin dana geldi egon . . . 66
2.11. Bere jokabideagatik nabarmentzen danari 70
2.12. Burugogorkeria adierazteko 72
2.13. Baliorik ez daukan pertsonari 72
2.14. Gauzak egiten arteza ez danari 74
2.15. Beste batzuk 74

1. ITXURAZKO EZAUGARRIAK

1.1. PERTSONA ZAHARKITUAREN ITXURA EDOTA PENTSAMOLDEA ADIERAZTEKO:

Agure makuleto:
(agure makuletoa!)
Aguretu eta kakotua

Agure txatxu:
(agure txatxue!)
Zahartu eta tximurtua

Aintzineko:
(añtxiñekoa!, añtxiñekue!)
Lege zaharrekoa

Antigualeko:
(antigualekoa!, antigualekue!)
Antzinako, modaz pasatakoa

Atso madarikatu:
(atso madariketue!)
Andre zahartu eta gaiztoa

Atso tronpeta:
(atso tronpetie!)
Atso zaratatsua

Atso zahar:
(atsozarra!)
Andre zahartua

1.2. PERTSONA ZIKINA DANEAN:

Antojugarri:
(antojugarridxe!)
Higuingarri, enpagugarria

Apo:
(apoa!, apue!)
Motza eta zikina

Babazto:
(babastoa!, babastue!)
Adurra dariola berbetan dauana

Enpagugarri:
(enpagugarridxe!)
Higuingarria

Kitano antza, kitana antza:
(Kittanoantza! Kittanantza!)
Ugerrez beterik dabilena

Koipelustre:
(koipelustrie!)
Fardel, narras eta zikina

Koipezto:
(koipezto!, koipeztoori!)
Ugerdo zikina

Lazki:
(lazkidxe!)
Zikina

Lorrin:
(lorriñe!)
Gauzak trakets eta zikin egiten dituena

Mantar:
(mantarra!)
Zarpail, trauskila

Mokoti:
(mokotidxe!)
Mokoa dariola dabilena

Saskil:
(saskille!)
Saskel, zikin, narrasa

Saskilon, saskilona:
(Saskillon! Saskillona!)
Saskel handia

Saskilontzo, saskilontza:
(saskillontzoa!, saskillontzie!)
Saskel handia

Treuskil:
(treuskille!)
zakar, zarpaila

Txarri:
(txarridxe!)
Zikin, lizuna

Txarritto:
(txarrittoa!)
Ugerdo, zikina

Treuskilontzo, treuskilontza:
(treuskillontzoa!, treuskillontzie!)
Zarpail, handia

Uger:
(ugerra!)
Lohia, zikina

Ugerdo/ ugerda:
(ugerdue!, ugerdoa!, ugerdie!)
Ugerrez betea, zikina

Ulenpo:
(ulenpoa!, ulenpue!)
Ulea txukundu barik.

Ulezto:
(uleztoa!, uleztue!)
Zapaztoa

Uzkerti:
(uzkertidxe!)
Uzkerrak botatzen dituena

Zapazto:
(zapaztoa!, zapaztue!)
Ulezto

Zatar:
(zatarra!)
Lizun, lohi, zantarra

Zaztar:
(Zaztarra!)
Zikina

1.3. Mugimendu gitxiko jendea

Dandarrez dabilena:
(dandarrez dabillena!)
Ibili ezinik dabilena, alferra

Gantzopil:
(gantzopille!)
Odolbakoa

Gerizpetako idielako:
(gerizpetako idielakoa!, idielakue!)
mugimendurik bakoa

Keto:
(ketoa!, ketue!)
Kikil, txepela

Kikil:
(kikille!)
Ez daukana mugitzeko adorerik

Lebatz:
(lebatza!)
leloa, papaua

Lorito:
(loritoa!, loritue!)
Mugimendubakoa

Nagi:
(nagidxe!)
Alfer, gibelandia

Narrean antzean dabilena:
(narran antzien dabillena!)
Arrastaka dabilena

Odolbako:
(odolbakoa!, odolbakue!)
Bizirik bakoa

Pepelontzo, pepelontza:
(pepelontzoa!, pepelontzie!)
Memelo, lerdoa

Tartera zahar:
(tartera zarra!)
Mugimendu gutxikoa

Tentel:
(tentela!)
Kokolo, memeloa

Trentinbako:
(trentinbakoa!, trentinbakue!)
Geldoa

Ustel:
(ustela!)
Alfer handia

1.4. Elementu fisikoren bat nabarmentzen jakonean:

Bainepalu:
(baiñepalue!)
Handia, argala eta luzea

Baldur:
(baldurre!)
Handi-handia eta ibilera traketsa dauana

Baragarri:
(baragarridxe!)
Itxura txar desegokia eta komikoa dauana

Begioker:
(begiokerra!)
Begi okerrak dituena

Belarrihandi:
(belarriandidxe!)
Belarri handi-handiak dituena

Beterre:
(beterrie!)
Begi errea

Bizerdo:
(bixerdoa!, bixerdue!)
Bizarra kendu barik ibiltzen dana

Bizertona:
(bixertonie!)
Ule aso dauan andrea

Burduntzipalu:
(burduntzipalue!)
Mehe eta luzea

Buruhandi:
(buruandidxe!)
Buru handi-handia dauana

Eperdihandi:
(eperdihandidxe!)
Epurdi masaila handiak dituena

Eperdisakuto:
(eperdisakutoa!, eperdisakutue!)
Eperditsua

Eperditxikola:
(eperditxikola!)
Eperdi gauzeztana dauana

Epo:
(epoa!, epue!)
Txiki ezereza

Erre:
(errie!)
Gauzeztana

Gauzeztan:
(geuzeztana!)
Txikia. Ez dauana ezertarako balio

Ginbeleta:
(ginbeleta!)
Argal tipo barragarria



Haginhandi:
(aginandidxe!)
Hagin handiak dituena

Hankaoker:
(hankaokerra!)
Berna okerrak dituena

Hankatrebero, hankatrebera:
(ankatreberoa!, ankatreberie!)
Hankaokerra

Iger:
(igerra!)
Zahartua, tximurtua

Itxurabako:
(itxurabakoa!, itxurabakue!)
Motza

Kakanarru:
(kakanarrue!)
Zehatz txikia

Kankailu / Kankaila
(kankaillue!, kankaillie!)
Handi-handia

Kankailuzar:
(kankailluzarra!)
Handikote traketsa

Kazkailu:
(kazkaillue!)
Txiki-txikia

Kontrabista:
(kontrabistie!)
Begiokerra

Makailu hazur:
(makailluazurre!)
Argal-argala

Makera zahar:
(makerazarra!)
Urdama zikin, andre handia

Marihandi:
(mariandidxe!)
Oso handia, kankaila

Mokordo:
(mokordoa!, mokordue!)
Motz-motza

Moloton antza:
(moloton antza!)
Lodia

Mostronko, mostronka:
(mostronkoa!, mostronkie)
Itxurabako handi eta desatsegina

Musturhandi:
(musturrandidxe!)
Mustur handia dauana.

Okotzhandi:
(okotzandidxe!)
Okotz handiegia dauana

Pitilinbako
(pitilinbako!)
Zakil zehatz txikiduna

Pigurebako:
(piguebakoa!, pigurebakue!)
Itxurabakoa

Potin:
(potiñe!)
Txiki-txikia

Prakatzo:
(prakatzo!)
Galtza handiak dituena

Prakote:
(prakote!)
Galtza handiak dituena

Prakatxiki:
(prakatxiki!)
Galtza txiki-txikiak dituena

Surhandi:
(surrandidxe!)
Sudur handia dauana

Surmakur:
(surmakurre!)
Sudur okerra dauana

Taloarpegi:
(taloarpegidxe!)
Aurpegi handi eta biribila

Txepetx:
(txepetxa!)
Txiki-txikia

Txepota:
(txepotie!)
Konkorduna

Txitxilinbako:
(txitxilinbakue!)
Zakila oso txikia dauana

Ziztrin:
(ziztriñe!)
Gauzeztana, txikia

Zorri:
(zorridxe!)
Txiki-txikia

1.5.- Animalien ezaugarriak adierazteko:

Apo:
(apoa!, apue!)
Txerri, itsusi zikina

Astokilo:
(astokiloa!, astokilue!)
Inozo, kirtena

Astokume:
(astokumie!)
Astoko, indar handia dauana

Azeri:
(azeridxe!)
Pertsona maltzurra

Ganbelu:
(ganbelue!)
Ibilera narrasa dauana

Hegabera:
(hegaberie!)
Norabide barik galduta dabilena

Lupu:
(lupue!)
Azeri, gaiztoa

Makera zahar:
(makerazarra!)
Urdama zikin handia

Mozolo:
(mozoloa!)
Tonto aurpegia jartzen dauana

Otsoaren tipoko:
(otsoan tipokoa!)
Itxura oldarkorra. Emetasun gitxiko andrea.
Ule asko daukana gorputzean

Txarri:
(txarridxe!)
Zikin, lizuna

Txarritto:
(txarrittoa!, txarrittue!)
Ugerdo

Txepetx:
(txepetxa!)
Txikia

Zapo:
(zapoa!, zapue!)
Tranposoa

Zorri:
(zorridxe!)
Txiki-txikia

2. IZAERAZKO EZAUGARRIAK

2.1.-ADIMEN GITXIKO PERTSONARI:

Argibako farola:
(argibako farolie!)
Adimenbakoa

Artaburu:
(artaburuori!, artaburue!)
Kirtena

Astokilo:
(astokilloa!, astokillue!)
Inozoa